

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### Beharrezko desjabetzapena. Hasierako onarpena

Alkatetzaren 2020ko urriaren 19ko Dekretuaren bidez, honako hau ebatzi da:

Lehenengoa. Hasieran onestea Aramaioko Oletako EUTEra elektrizitate-hartune berria egiteko proiektua, Oier Ezquerria jaunak 2020ko urrian idatzitakoa. Proiektu horrek berekin dakar ukitutako ondasunak eta eskubideak onura publikokoak direla eta okupatu egin behar direla aitortzea, desjabetze-espeditentia hasteko.

Proiektua jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean; epe horretan, dokumentua udal honetako idazkaritzan egongo da interesdunaren eskura, hark kontsulta dezan. Epe horretan, egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Bigarrena. Desjabetze-espeditentia hastea, Oletako EUTEra lurpeko linea elektriko bat instalatzeko betiko zortasuna eratzeko eta linea hori 2 m-ko zabaleran mantentzeko; horietan ezingo da inolako eraikuntzarik edo zuhaitz-landaketarik egin, eta obren iraupeneko hilabete eta erdiko epean proiektuaren 1. eranskinak ukitutako ondasun eta eskubideak aldi baterako okupatzeko.

Eta hasierako onespina ematea desjabetzearen ondorioetarako ukitutako ondasun eta eskubideen zerrendari eta horien titularren zerrendari:

Lotura-puntua Oletako plazan egongo da, Oletako Administrazio Batzarraren titulartasuneko jabari publikokoa, eta, ondoren, jabetza pribatuko partzeleir eragingo die.

1. katastroko 9. poligonoko 386. partzela.

Uso. larreak.

Pasearen betiko zortasuna. 187 m<sup>2</sup> (93,60 ml x 2 m).

Aldi baterako okupazioa. 187,20.

Titularrak. Francisco. Javier, Juan Ignacio, Luis Gonzalaga, Gonzalo eta Alfonso Vicinay Tajada.

Erregistroko inskripzioa. Ez dago jasota.

2. 9. poligonoko 387 a) lurzatia.

Uso. mendi zurgaila. Europako pikea.

Betiko zortasuna. 462,66 m<sup>2</sup> (231 ml x 2 m).

Aldi baterako okupazioa. 462,66 m<sup>2</sup>.

Eragindako beste elementu batzuk. 6 unitate (Europako pikea).

Titularrak. Francisco. Javier, Juan Ignacio, Luis Gonzalaga, Gonzalo eta Alfonso Vicinay Tajada.

Erregistroko inskripzioa. Ez dago jasota.

3. 9. poligonoko 388. partzela.

Uso. mendi zurgua. Radiata pinua.

Lurpeko hoditeriarako betiko zorgunea. 888,80 m<sup>2</sup> (444,40 m x 2 m).

Aldi baterako okupazioa. 888,80 m<sup>2</sup>.

Erasandako beste elementu batzuk. 4 intsinis pinu unitate.

Titularrak. Isidro Vicinay Echezarreta jaunaren oinordekoak.

Erregistroko inskripzioa. Ez dago jasota.

Jarraian, eroanbideak udalaren alde eraturako zortasun-bidea hartuko du, Oletako EUTEra sartzeko, 9 poligonoko 344 eta 340 katastro-partzelen gainean, zeinak kontserbatzen eta mantentzen baititu, eta alboetako batetik igaroko da, eta linea elektrikoa jartzeak edo ondorengo mantentze-lanak ez du eraginik izango partzela pribatueta, zortasun-bidearekin lehendik dagoenaz gain.

Eta jakinaraztea beharrezkoa dela espedientea urgentziaz izapidetzea, lurak lehenbailehen okupatu behar direlako, obrak berehala egiteko, edateko uraren hornidura-zerbitzua modu seguru eta etengabe emango dela bermatzeko.

Hirugarrena. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda eta horien titularrak jendaurrean jartzea, ALHAOn argitaratu eta 15 egun balioduneko epean, interesdun orok egoki irizitako alegazioak aurkez ditzan Aramaioko Udaleko erregistro orokorrean, bertan egon daitezkeen akatsak zuzendu ahal izateko, 17. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritik. Desjabetzapen Legeak, onura publikoa eta okupazio-beharra deklaratzeari dagokionez.

Norbaitek ulertzen badu aipaturako ondasunen gaineko eskubide erreal baten edo interes ekonomiko baten titularra dela eta harekin eginbideak egin behar direla, jendaurreko informazio-aldian eskatu beharko du, eta behar bezala egiaztatu, Desjabetzapen Legearen 4. artikuluan arabera. Jabeak edo titularrak espedientean agertzen ez badira, ezgaituta badaude eta tutorerik edo horien ordezkari ez badute, edo jabetza auzigaia edo ezezaguna bada, eginbideak Fiskaltzarekin egingo direla ulertuko da.

Eta Isidro Vicinay Echezarreta jaunaren ondorengoei gonbita egitea, lurraren titularraren jaraunseak direla eta partaidetza-kuota dutela egiazta dezaten. Halaber, jakinarazi behar zaie, adierazitako epean datu horiek egiaztatzen ez badira, espedientea Fiskaltzari bidaliko zaiola, Desjabetzapen Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Adierazitako epean erreklamaziorik egiten ez bada, proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza behin betiko onetsitatzeko joko da, onura publikokotzat eta okupazio-prematzat deklaraturat; presakotzat joko da, eta titular direla egiaztatzen dutenei gonbita egingo zaie jabaria eta aldi baterako okupazioa elkarren arteko adostasunez eskuratzea ahalbidetuko duen prezio bat proposa dezaten.

Honakoaren aurka, izapide hutseko egintzak direnez, ezin da errekurtsorik jarri, egokitatzat jotzen diren ekintzak alde batera utzi gabe.

Jende guztiak jakin dezan argitaratzen da.

Aramaion, 2020ko urriaren 19an

*Alkatea*

**LIERNI ALTUNA UGARTE**